

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA ELKARTE, BALLARIAIN, BERRIOSUSO ETA BERRIOBEITIKO SANEAMENDURAKO DESJABETZEAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak, 2022ko apirilaren 11n egin zuen saioan, akordio hau hitzartu zuen:

“2021eko abuztuaren 31n, Iruñerriko Zerbitzuak, S. A. sozietatearen Administrazio Kontseiluak “SM286979 Elkarte, Ballariain, Berriogoiti eta Berriobeitiko saneamendua” proiektua onartu zuen. Administrazioari jakinarazteko aurrekontu zenbatetsia 2.407.820,24 euro da (%21eko BEZA barne).

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak, 2021eko abenduaren 23an egin zuen saioan, Batzar Nagusiak eskuordetuta, “SM286979 Elkarte, Ballariain, Berriogoiti eta Berriobeitiko saneamendua” obraren proiektua onartzeko akordioa hartu zuen, desjabetzeko espedientea hasi zuen eta hasiera batean onartu zuen proiektu horrek ukitzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda. Desjabetzearen onuraduna Iruñerriko Zerbitzuak, S. A. da. Horrez gain, proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen onura publikoa eta okupatu beharra aitortu eta deklaratu zituen, onarpenari lotuta baitaude.

Akordio horretan, proiektua eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri zen hamabost eguneko eperako.

Onartze horren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, 8. zenbakikoan, 2022ko urtarrilaren 13an, Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan, 2022ko urtarrilaren 15ean, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Berriobeitiko udaletxeko iragarki-oholetan. Eta horrez gain, jakinarazpenak bidali zitzaizkien ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendan ageri ziren pertsoneri.

Hasierako onespeneraren egunetik oraindaino akordioak lortu dira ukitutako gehienekin, eta, horrenbestez, egokia da ondasunen behin betiko zerrenda aldatzea.

Jendaurrean egoteko epean, pertsonetako bakar batek aurkeztu zituen alegazioak. Azkenean, akordioa lortu da pertsona horrekin eta, beraz, alegazioak eraginik gabe gelditu dira.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 20. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, eta aintzat hartuta, Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 47.4 eta 29. artikuluen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1.d) artikulua eta Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuen 4. artikulua arabera, erakunde honek desjabetze-ahalmena gauzatu ahal duela, egokia da desjabetzeko espedientea behin betiko onartzea.

Batzar Nagusiak 2021eko urriaren 21ean egin zuen saioan onartu zen Batzar Nagusiaren eskumenak Batzorde Iraunkorraren alde eskuordetzea, nahitaez desjabetzeko espedienteak izapidetzeko.

HITZARTU DA:

1.- Behin betiko **ONARTZEA** Iruñerriko Zerbitzuak, S. A. sozietatearen, desjabetzearen onuradunaren, “SM286979 Elkarte, Ballariain, Berriogoiti eta Berriobeitiko saneamendua” obrari dagokion proiektua, eta bai proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda ere. Horrek berekin dakar onura publikoa eta okupatu beharra deklaratzeko.

2.- Nafarroako Gobernuari **ESKATZEA** egin beharreko obraren presazko deklarazioa egin dezala, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan jasota dauden eraginetarako, beharrezkoa baita lanak ahalik eta azkarrena egitea, Berriogoiti eta Berriobeiti herrietako hobi septikoen egoera eskasa delako, eta bai Gipuzkoako errepidearen bi aldeetan kokatuta dauden industriei zerbitzua ematen dieten hobiak hobetu behar direlako, eragin zuzena baitute Txulapain ibaian. Beste alde batetik, aintzat hartuta nekazaritzako lurzatien lurzoruen

ezaugarriak eta eraiki beharreko kolektoreak igaro behar duen sakonune txiki batean kokatuta daudela, agorraldian egin behar da, lurzatieta ongi iritsi ahal izatea eta lurzati lehor eta drainatuekin hondeatze-lanak egin ahal izatea ahalbidetzeko.

3.- EZARTZEA Iruñerriko Zerbitzuak, S. A. sozietateak agindu beharko duela bere banku-kontuetan nahikoa diru egon behar dela eskuragai ukitutako ondasun eta eskubideen balio justua ordaintzeko eta “SM286979 Elkarte, Ballariain, Berriogoiti eta Berriobeitiko saneamendua” obraren desjabetze-prozeduraren ondoriozko gainerako betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko, modu horretan bermatua izan dadin balio justu gisa finkatutako diru-kopuruak ordaintzea ukitutakoei.

4.- AHALMENA EMATEA Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariari edo berak eskuordetzen duen pertsonari sina dezan okupatu aurreko akta eta desjabetzea egiteko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako agiriak.

5.- Akordio hau **KALERATZEA**, ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Berriobeitiko udaletxeko iragarki-oholetan; eta Foru Komunitateko egunkari batean iragarki berberaren laburpen bat argitaratzea.

6.- Akordio hau **JAKINARAZTEA** interesdunei, adierazita haren aurka errekurtsio hauetako bat aurkez dezaketela, aukeran: 1.- Berraztertze errekurtsioa, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorraren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hilabeteko epean. 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta bi hilabeteko epean. Eta 3.- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, egintza hau jakinarazi den egunetik aurrera zenbatuta hilabeteko epean”.

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an. Lehendakaria, David Campión Ventura.

**UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZARRENDA
FASEA: PROIEKTUA**

FINKAR EN ZENBA KIA	JABEAREN DATUAK	ERAGINAK					KATASTROKO DATUAK			
	TITULARRA	AKUEDUKTU ZORTASUNA METRO LINEALAK	ZORTASUN EZARPENA METRO KARRATUAK	OKUPAZIOA ERREGISTROAK MOTA	OKUPAZIOA ERREGISTROAK ZENBAKIA	BEHIN-BEHINEKO OKUPAZIOAK METRO KARRATUAK	UDALERRIA	POLIGONO ZENBAKIA	LURZATI ZENBAKIA	ERABILERA
BE-14	ERDOCIA ARRUABARRENA PETRA ISABEL	129,93	780	T2	2	2.213,40	BERRIOBEITI	14	209	LEHORREKO ALORRA
BE-19	LECUMBERRI DONÁZAR JOSÉ MARÍA	21,69	130		0	479,47	BERRIOBEITI	13	413	LEHORREKO ALORRA
	LECUMBERRI DONÁZAR MARÍA SAGRARIO									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA ÁNGELES									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA JOSÉ									
	LECUMBERRI ESLAVA JESÚS MARÍA									
	LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALÍA									
BE-25	LECUMBERRI DONÁZAR JOSÉ MARÍA	6,5	39	T2	1	147,41	BERRIOBEITI	13	396	LEHORREKO ALORRA
	LECUMBERRI DONÁZAR MARÍA SAGRARIO									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA ÁNGELES									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA JOSÉ									
	LECUMBERRI ESLAVA JESÚS MARÍA									
	LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALÍA									
BE-32	LECUMBERRI DONÁZAR JOSÉ MARÍA	0	0		0	200,12	BERRIOBEITI	13	398	LEHORREKO ALORRA
	LECUMBERRI DONÁZAR MARÍA SAGRARIO									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA ÁNGELES									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA JOSÉ									
	LECUMBERRI ESLAVA JESÚS MARÍA									
	LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALÍA									



BE-40	LECUMBERRI DONÁZAR JOSÉ MARÍA	35,5	213	T2	1	710,00	BERRIOBEITI	13	309	LEHORREKO ALORRA
	LECUMBERRI DONÁZAR MARÍA SAGRARIO									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA ÁNGELES									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA JOSÉ									
	LECUMBERRI ESLAVA JESÚS MARÍA									
	LECUMBERRI ESLAVA PABLO									
	LECUMBERRI ESLAVA ROSALÍA									
BE-76	LECUMBERRI DONÁZAR JOSÉ MARÍA	0	0		0	4.364,00	BERRIOBEITI	13	563	LEHORREKO ALORRA
	LECUMBERRI DONÁZAR MARÍA SAGRARIO									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA ÁNGELES									
	LECUMBERRI ESLAVA MARÍA JOSÉ									
	LECUMBERRI ESLAVA JESÚS MARÍA									
	LECUMBERRI ESLAVA PABLO									
	LECUMBERRI ESLAVA ROSALÍA									